

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



33. Informazio Buletina 2009ko Apirila





NABARMENDU BEHARREKOA

Europar Batasunaren proposamenak langabeziaren kontra eta lanpostuak sortzeko

Maiatzaren 7an, Europar Batasunak bilera berezia egin zuen krisi ekonomikoak Europako enpleguan duen eraginari heltzeko. Langabeziaren kontra borrokatzeko eta lanpostu berriak sortzeko hamar ekintza zehaztu ditu goi-bilerak, epe laburreko zein epe luzeko erronkei zuzenduta:

1. Ahalik eta pertsona gehien lanean mantentzea, aldi baterako lanordua egokituz, funts publikoen laguntzarekin birziklapen-prestakuntzarekin bateratuz.
2. Enpresa-espirtua eta enpleguaren sorkuntza sustatzea, esaterako, eskulanaren eta malgutasun-segurtasunaren soldadari ez dagozkion kostuak jaitsiz.
3. Enpleguaren nazio zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea, langabeziaren lehen asteetan aholkularitza, prestakuntza eta lan bilaketa modu intentsiboan eskainiz, gazte langabetuei bereziki.
4. Kalitate handiko prestakuntza-ikastaroen kopurua modu nabarmenean handitzea.
5. Lan-pizgarriak bermatuz barneratzeko aukera gehiago ematen duten lan-merkatuak, lan-merkatuari zuzendutako politika aktiboak eta eraginkorrak eta gizarte-babesaren sistemen modernizazioa sustatzea. Horrek, halaber, gizarte egoera ahuleko taldeak hobekiago gizarteratzea ekarriko luke, besteak beste, ezgaitasunak dituztenak, gutxi trebatutako langileak eta migratzaileak.
6. Etengabeko prestakuntzaren bidez maila guztietan trebakuntzak areagotzea, bereziki garaia baino lehen ikasketak utzi dituztenek lana aurki dezaten beharrezko prestakuntzak eskainiz.
7. Eskulanaren eskaintza eta eskaria bat etor daitezen langileen mugikortasuna erabiltzea, ahalik eta emaitza onenak erdietsiz.
8. Lan-aukerak eta eskatutako trebakuntzak identifikatzea, eta trebakuntzen aurreikuspenak hobetzea, prestakuntza-eskaintzetarako eskubidea izateko.
9. Langabetuei eta gazteei euren negozio propioak sortzen laguntzea, esaterako, enpresa-laguntzaren prestakuntza eta hasierako kapitala eskainiz; edo sortzearen dauden enpresa berriei zerga-ordainketa txikiagotuz edo ezabatuz.
10. Berregituraketa aurreratu eta kudeatzea, elkarrekiko ikaskuntzaren eta praktika egokien trukaketaren bidez.

Informazio gehiago (ingelese):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=88&langId=en&eventsId=173&furtherEvents=yesConsolidated%20report%20from%20the%20preparatory%20workshops>



Gipuzkoako ekonomiaren jarduerak behera egin du, Europar Batasunaren beherakadaren antzeko zenbatekoan

2009ko lehen hiruhilekoan, Gipuzkoako BPGak % 2,3 behera egin zuen aurreko hiruhilekoarekin alderatuz, 2008ko laugarren hiruhilekoan abiatutako ekonomia jardueraren narriadura areagotuz.

Gipuzkoako ekoizpenaren beherakada Europar Batasun osoarena baino zertxobait baxuagoa da (% -2,5). Alemania bezalako herrialdeetan, narriadura ekonomikoa handiagoa izan zen; aitzitik, Frantzia, Espainia edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan, urteko lehen hiruhilekoan uzkurdua zertxobait apalagoa izan zen.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0003200/ti_Barne_Produtu_Gordina_lurralde_historik_oaren_eta_hiruhilekoaren_arabera_Bolumen-indize_kateatua_2009/tbl0003224_e.html

Europaren erronken inguruko hausnarketa-jardunaldia

Maiatzaren 13an Europaren Erronkei buruzko jardunaldia ospatu zen Donostian. Jardunaldia Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen, eta Markel Olano Ahaldu Nagusiak inauguratu zuen jardunaldia. Bertan izan zen Odon Elorza Donostiako alkatea ere, eta hiru aditu ospetsuk hitzaldi bana eman zuten Europako Parlamenturako datozen hauteskundearen aurrean Europako eraikuntzaren eta Europako herritarren erronken inguruan.

Era berean, Gipuzkoako finantza-erakunde, enpresa-erakunde, enpresa, unibertsitate eta hedabideen ordezkari garrantzitsuek parte hartu zuten jardunaldian.

Informazioa gehiago (Gipuzkoako Ahaldu Nagusiaren hitzaldia):

<http://www.gipuzkoa.net/noticias/archivos/jornadaeuropeahitzak.pdf>



KOHESIO-POLITIKA

Kohesio-politikaren etorkizuna

Eskualde-Politikako Zuzendaritza Nagusiaren aginduz, Fabricio Barcak txosten bat egin du, kohesio-politikaren eraginkortasuna ebaluatu eta 2013tik aurrera haren erreformarako proposamenak planteatzeko xedearekin.

Txostena, unibertsitateko adituekin eta politikak elaboratzeko arduradunekin egindako entzunaldi eta mintegietan oinarritzen da. Aipatu politikaren xede izango diren hainbat ezinbesteko lehentasun eta kohesio-politikaren gobernantzaren hainbat ezinbesteko oinarriren erreformari buruzko gomendioak aurkezten ditu.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/regional_policy/policy/future/barca_es.htm

Hiri-garapen jasangarria sustatzea

Eskualde-Politikako Zuzendaritza Nagusiaren agiria, Urban ekimena abian jarri zenetik pasatu diren 20 urteetan izandako esperientzien balantzea egiten duena.

Halaber, proiektu eta praktika egokien aukeraketa aurkezten du; horrela, proiektuak gauzatzeko hainbat gomendio aurkezten ditu, hiri-proiektuak hiriarentzat globalagoa den garapen-estrategia baten baitan integratzeko beharrea eta helburu zehatz batzuetan oinarrituta.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/urban2009/urban2009_en.pdf

Gipuzkoako udalen helburuetara bideratutako kudeaketari bultzada

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren xedea, Gipuzkoako udalen helburuz helburuko kudeaketa sustatzea da, Plan estrategikoak edo/eta legegintzaldi-planak eginez. Halaber, urteko helburuak finkatzea, aurrekontuekin eta kudeaketaren adierazle eta aginte-koadroen definizioarekin koherentzian.

Horretarako, 2009ko maiatzaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Foru Agindu bat argitaratu da. Aginduak, Gipuzkoako tokiko erakundeei zuzendutako 2009ko diru-laguntzen deialdia ebazten du, helburu eta emaitzei bideratutako kudeaketa sustatzeko plan eta proiektuak gara ditzaten.

Agindu horretan, Gipuzkoako 17 udalei emandako diru-laguntzak jasotzen dira; guztira, 263,4 mila euroko zenbatekoa osatzen dute.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2009/05/08/c0905607.pdf>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Europa biztanleriaren zahartzearen aurrean

Historian lehen aldiz, Europako herritarren gehiengoak bizitza aktiboa, osasuntsua eta parte-hartzailea izan dezake adinez zaharra izanda ere. Era berean, zahartze-prozesuan dauden gizarteek aukera berriak eskaintzen dizkiete enpresa berritzaileei, ondasunen eskariaren eta zerbitzu berri edo egokituen bidez.

Hala ere, biztanleriaren zahartzea eta jaiotze-tasa baxuak izateak, ekonomia, aurrekontu eta gizarte mailako erronka garrantzitsuak planteatzen ditu ere. Erakundeen eta ezarritako politiken baitan aldaketa berririk sortzen ez bada, joera demografikoek gure gizarteak modu nabarmenean aldatzea espero da. Horrek eragina izango du belaunaldien arteko elkartasunean eta etorkizuneko belaunaldiei eskakizun berriak ezarriko dizkie.

Joera horiek eragin nabarmena izango dute hazkundearen boterean, eta gastu publikoa areagotzeko presio handiak dakartzate; ez soilik pentsioei eta osasunari dagokienez, baita azpiegitura, etxebizitza eta hezkuntzari dagokionez ere.

Zentzu horretan, biztanleriaren zahartzeak planteatzen dituen erronkei modu egokian ekiteko prestakuntza helburu izanik, Europako Batzordeak aipatu erronkak gainditzeko ekarpena planteatzen du txosten batean.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0180:FIN:ES:PDF>

Gazteriari zuzendutako estrategia: inbertsioa eta trebakuntza

Europarrak bizitza luzekoak dira, seme-alabak beranduago izaten dituzte eta gazte gutxiago dago. 2050 urtean, Europako biztanleriaren % 15,3a 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak izatea aurreikusten da, egungo % 19,3arekin alderatuta.

Hauek dira gazteriaren kezken zerrendan nagusi diren erronka zehatzak: hezkuntza, enplegua, gizarteratzea eta osasuna, eta halaber, gizartean eta politikan parte-hartzea, boluntariora, sormena, enpresa-espirtua, kirola eta munduarekiko konpromisoa bezalako aukerak aprobetxatzeko prest egon behar dira.

Egoera honen aurrean, estrategia europar berriak honako hiru helburu orokorrak ezarri ditu: hezkuntza eta enpleguaren alorrean gazteriarentzat aukera gehiago sortzea, gazte guztiek gizartean sartzeko bidea eta bertan parte-hartze osoa hobetzea, eta gizartearen eta gazteen arteko elkartasuna indartzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0200:FIN:ES:PDF>



Energia berriztagarria: aurrerapen-maila

Batzordearen Txostenak iturri berriztagarrietatik eratorritako energia-kontsumoan egindako aurrerapenak aztertzen ditu, 2004-2007 epean oinarrituta.

Halaber, txostenak etorkizuneko estrategia eta datozen urteetan bere garapena sustatzeko (biomasarena barne) aurreikusitako ekintzak planteatzen ditu, legegintzako marko berri baten bidez.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0192:FIN:ES:PDF>

Arrantza-politika bateratuaren erreformari buruzko liburu berdea

Arrantza sektorea ezinbestekoa da Europako biztanleria elikagaiez hornitzeko eta Europako kostaldeko biztanleen bizibidea da. Beraz, Europar Batasunarentzat arrantzaren etorkizuna bermatzea helburu politiko garrantzitsua da, eta hala izaten jarraitu behar du.

Egungo egoeraren ezaugarri nagusiak gehiegizko arrantza, ontziteriaren gehiegizko ahalmena, diru-laguntza handiak, hauskortasun ekonomikoa eta arrantzale europarrek arrantzatutako arrainaren bolumenaren jaitsiera dira. Egoera honen aurrean, Arrantza-Politika Bateratua ez da behar bezain eraginkorra izan.

Politika honen etorkizunaren inguruko eztabaida publikoa eta iritzien adierazpena sortu eta pizteko xedearekin, Europako Batzordeak Liburu Berde bat egin du, interesa duten alde guztiak urte amaiera aurretik euren iruzkinak egin ditzaten gonbidatuz.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0163:FIN:ES:PDF>



e-LIBURUTEGIA

Belaunaldien arteko elkartasuna Europar Batasunean

Europako Batzordearen Eurobarometroak, estatu kideetan belaunaldien arteko elkartasunaren eta horren inguruan herritarrek duten pertzepzioaren inguruko txostena argitaratu du.

Gazteriaren eta adin handiagoko pertsonen arteko harremanak, biztanleriaren zahartzearen ondorioz sortutako kostuak, pentsio-sisteman beharrezkoak diren erreformak, pertsona zaharrek gizarteari egiten dioten ekarpena, pertsona zaharrek bizitza autonomoa izateko aukerak aztertzen ditu dokumentuak; halaber, belaunaldien arteko elkartasuna sustatzeko sektore publikoan garatu beharreko politikak aztertzen ditu.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/flash/fl_269_sum.pdf

Jasangarritasunaren udal-adierazleak Euskal Autonomia Erkidegoan

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, "Jasangarritasunaren udal-adierazleak Euskal Autonomia Erkidegoan" 2009ko Urteko Txostena aurkeztu du.

UDALMAP, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Informazioko Sistemari lotutako argitalpen berri honen helburua, banakako azterketaren bidez, Autonomia Erkidegoko udalen adierazle nagusiak eskaintzea da.

Zentzu honetan, udalen ikuspegi berria eskaintzen du, Udalmap-ek online eskainitako informaziotik abiatuta egindakoa.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19220/es/contenidos/informacion/estudios_publicaciones_dep/es_publica/adjuntos/udalmap.pdf

Gipuzkoako kanpo-merkataritza 2008

2008an barrena Euskal Autonomia Erkidegoaren eta lurralde historikoen kanpo-merkataritzaren emaitza nagusien azterketa, Eustatek eginda. Gipuzkoan esportazioak % 8 igo ziren, 6.615 milioi eurora iritsiz: Muga-zergen lau partidek esportazioen guztizkoaren % 27a osatu zuten: ibilgailu automobilen atalak eta osagarriak, aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak, txorroten eta antzekoen artikulak eta aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko barrak.

Bestalde, inportazioen % 3 behera egin zuten, 3.922 milioi euroko zenbatekora iritsiz. Honela, estaldura-tasa % 169ra igo zen, 2.693 milioi euroko superabit-saldoa erdietsiz.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elementos/ele0005100/ti_Comercio_exterior_2008/inf0005168_c.pdf



ADIERAZLEAK

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspen ekonomikoak

2009-2010erako Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspen ekonomikoek, aurten Europar Batasunean BPGa % 4 jaitsiko dela eta 2010ean modu orokorrean egonkortuko dela islatzen dute.

Atzeraldiaren faktore erabakigarri nagusi gisa honako hauek aipatzen ditu: munduko finantza-krisiak okerrera egitea, munduko merkataritzaren bat-bateko uzkurdua eta hainbat ekonomiatan etxebizitzaren merkatuetan gertatzen ari diren zuzenketak. Hala ere, hazkundeak 2010ean berriz ere bultzada izatea espero du Batzordeak, zerga- eta txanpon-pizgarrien neurrien eraginaren ondorioz.

Bestalde, 2010ean langabezia-tasa % 11raino iristea eta defizit publikoak bat-bateko igoera izatea, urte horietan BPGaren % 7,25ean kokatuz, aurreikusten da, dezelerazioaren eta ekonomiari eusteko hartutako neurri berezien ondorioz.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://ec.europa.eu/economy_finance/thematic_articles/article14927_en.htm

Finantza publikoen estatistikak

Eurostaten argitalpenak, Europar Batasuneko 27 estatu kideen, zein Islandia eta Norvegiaren, finantza publikoen informazio estatistiko eta bateratu zabala eskaintzen du: diru-sarrerak eta gastu publikoak, defizita, transakzioak eta bestelako intereseko alderdiak.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-EK-09-001/EN/KS-EK-09-001-EN.PDF

Europar Batasunean sartzeko herrialde hautagaiak

Europar Batasunean sartzeko herrialde hautagai eta potentzialen inguruko informazio estatistiko eta grafikoa, Eurostatek eginda: Kroazia, lehengo Mazedoniako Errepublika Jugoslaviarra, Turkia, Albania, Bosnia eta Herzegovina, Montenegro eta Serbia.

Hainbat gai-eremu hartzen ditu bere baitan, hala nola, demografia, hezkuntza, gizarte baldintzak eta enplegua, kontu nazionalak eta finantzak, nekazaritza, energia, industria, eraikuntza, zerbitzuak, garraioak, telekomunikazioak eta informazioaren gizartea, kanpo-merkataritza, ikerketa eta garapena, zein ingurumena.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-PF-09-001/EN/KS-PF-09-001-EN.PDF